

JUANTXO-TXIKI NORDUN (12)

—Aizu, txiki...! Esan neutson Juantxo-txikiri lengo egun batean.

—Ni ez naiz txiki; txikia nire anaia da. Ni aundia naiz...

Benetan txikia da gure umetxoa eta iñoren aginpean egotea bearrezkoa dau; alan be, bere burua aundi ikusi gura dau.

Aundi izatea gura.

Eta bidean doa.

Bide orretan Jainkoak berberak ipiñi eban Juantxo-txiki, sortzetik ipiñi be.

* * *

*Aundia izateko gogo*a ume txikienak be agertzen dau tarteka-tarteka. Aundi izatea, norbere buruaren jabe izatea, persona izatea da.

Nortasuna izatea.

Nordun izan.

Orretarako jaio jaku Juantxo-txiki. Ortik sortzen jaku umeari bere barnean, persona serio lez tratatua izateko guraria be... Ortik era askotako protestak be. Amalau urte inguruan agertuko jaku protestarako miña eta gogo bizia; baiña, txiki-txikitatik datorkio min ori.

Asiera asieratik zure umetxoa persona eta nordun lez tratau bearco dozu. Protesta onein ardurarik ez badozu, aldenduko jatzu Juantxo-txiki eta galdu egingo dozu.

* * *

Umetxoa ez da zure otsein, ez eta zure menpeko bat ere, txikia eta ergela izan arren eta zure bear-izanean bada be. Gogo askearen argitxoa badau bere barruan; askatasunaren argia. Adimenaren argi askatzaille ori begien aurrean izan bearco dozu beti.

Gero eta geiago. Beti doa aurrera bere bidean eta adiñean, nortasunaren billa. Ez da betirako robot eta panpin bat. Ez andere eta andrako ere. Zuk lagunduta, robot izatetik persona izatera aldatu bearco dau.

Gero eta askatasun geiagoakin ezi; berberak bere buruari zelan agindu bear dautson erakutsiaz. Orixe izango da umetxoa ondo ezitea.

Indarrez zeure menpean umetxoa eukitea, ori da biderik errezena eta samurrena gurasoentzat; baiña, txarrena eta gaitxena umearentzat. Alderantziz be bardin da: askatasunaren bidea gurasoentzat zaillena eta gaitxena; umearentzat, ostera, onena. Eta Juantxo-txiki ondo eziteko bide ori artu bearrezkoa da.

* * *

Biarko gizona, gaur ume; zeure bereganako artu-emonetan gizon lez erabilli egizu biar gizon-emakume izango dan gaurko umea; astantzean errudun gertatuko zara une askoengan eta Juantxo-txiki gizontzean, zeure erruak gogoan izango ditu, ez ume bateri egindako erruak lez, gaurko gizonari egindakoak lez laiño.

Umeari atzo egindako okerrak Juantxo gizonak berari, gaurko gizon nagusiari, eginda lez gogoratzen dauz.

Orra korapillo latza eta prolema gaitza: Juantxo-txiki ez da gizon eta, alan be, gizon lez tratau bear dozu.